



EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

(C1) GAITASUN MAILAKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROBARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK, EUSKARA, ALEMANA, FRANTSES eta INGELERA HIZKUNTZetarako

AZTERKETARI LIBREAK

1. AZTERKETAREN HELBURUA

Azterketaren bidez ikasleak komunikatzeko duen gaitasun orokorra eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi dira.

Probaren bidez, ikasleak honako alderdiak menderatzen dituen ebaluatuko da: edozein egoeratan, informazioa jasotzean nahiz ekoiztean hizkuntza malgutasunez eta segurtasunez erabiltzea; ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea, baita testu zailak ere, gai orokorrei buruzkoak; hizkuntza-baliabideen erreperitorio zabala ondo menderatzea, egoeraren arabera; eta ahoskapen erlaxatuak eta bestelako doinuak ulertzea, baita zarata dagoen inguruetan ere.

Gaitasun Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko azterketa bat gainditu beharra dago. Azterketa horren maila ezartzeko, Europako Kontseiluaren C1 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien Gaitasun Mailako Curriculum: www.eoieuskadi.net

2. AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketak lau proba edo atal izango ditu: irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru atal idatzizko proba osatzen dute eta saio bakar batean egiten dira. Azkena da ahozko proba eta saio esberdin batean egiten da.
- Azterketaren iraupena: 4 ordu eta 5 minutu. Denbora honela banatuko da: gehienez 2 ordu eta 15 minutu irakurritakoaren ulermenari eta entzundakoaren ulermenari buruzko probak egiteko; ordu bat eta 30 minutu idatzizko proba egiteko eta 20 minutu ahozko proba egiteko.
- Gaitasun Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko, azterketariak atal edo proba guztiak gainditu beharko ditu. Gutxieneko puntu-kopurua: azterketariak puntu guztien 2/3 lortu behar du gutxienez. Hartara, idatzizko proban (irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena eta idatzizko adierazpena neurtzeko proban) 90 puntutik 60 lortu behar ditu; atal bakoitzean, 30 puntutik 20. Ahozko proban ere punten 2/3 lortu behar du (30 puntutik 20).
- Nolanahi ere, puntuen 2/3tik beherako puntuazioaren bat orekatu ahal izango da idatzizko probaren atalen batean, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada eta gutxienez %50era iristen bada. Horretarako, idatzizko probaren beste atalen batean orekatzeko nahikoa puntu izan behar dira proba honetako gutxieneko puntu-kopurura (60 puntuetara) iristeko moduan.
- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu.

3. AZTERKETAREN ZATIEN DESKRIBAPENA



IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	GUTXI GORA-BEHERAKO IRAUPENA
3	30 puntu - %25	20 puntu	85 minutu

Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<p><i>Orientazioa eta informazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuetan berariazko informazioa erraz aurkitzea, eta hainbat iturritatik datorren informazioa biltzea, berariazko eginkizuna gauzatzeko. • Oso espezializatuak ez diren gaietarako buruzko berrien, artikuluen, txostenen nahiz iragarkien edukia eta garrantzia identifikatzea. <p><i>Argudiaketa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Zenbait testu luze eta konplexu ulertzea, bai gizarte-bizitzakoak, bai eta lan- edo ikasketa-arlokoak ere. • Jarrera eta iritzi esplizituak zein implizituak barne hartzen dituzten xehetasun sotilak identifikatzea. • Literaturako egungo testuak ulertzea, baita hizkuntzako edo lagunarteko adierazpideak dakartzatenak ere. 	<ul style="list-style-type: none"> • Publizitate-iragarkiak. • Iritzi-artikuluak egunkari eta aldizkari espezializatuetan. • Txosten eta artikuluko konplexuak, gai askotakoak, baita espezializazio puntu bat daukatenak ere. • Egungo literatura obren zatiak eta ipuinak. • Liburuen, filmen edo antzerki-lanen aipamen edo berriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • erantzuna: aukera anitzekoak • informazio-transferentzia lanak • lotzea: (egoerak edo epigrafeak testuekin lotzea / esaldiak zer testutakoak diren edo esaldiek zer testurekin lotura duten esatea) • hutsuneak betetzea: (hutsuneetan esaldiak jartzea / hitz-zerrenda batean bildutako osagaiekin hutsuneak betetzea eta zenbakidun gelaxka batean jartzea/ hutsuneetan aukera zuzena jarriz testua osatzea / hutsuneetan hitz bakarra jarriz testua osatzea). • erantzun posible bakarreko galdera irekiak



ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPEN LUZEENA
2 edo 3	30 puntu - %25	20 puntu	45 minutu

Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<ul style="list-style-type: none"> Gai abstraktu eta konplexuei buruzko hitzaldi bat ulertzea, azterketariaren espezializazio-maila ere gainditu dezakeena. Hitzaldiak, debateak eta eztabaidak ulertzea. Hitzaldi batean oharrak hartzea. Adierazpen publikoetatik informazio zehatza ateratzea. Jarraibide teknikoak eta produktuen nahiz zerbitzuen zehaztapenak ulertzea. Albistegiak ulertzea. Telebistako filmak eta telesailak ulertzea, baita lagunarteko hizkera eta adierazpide idiomatikoak erabiltzen dituztenak ere. Elkarrizketa konplexuei jarraitzea, bai eta hirugarren pertsonen artekoak direnean ere. Esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzea. Erregistro-aldaketak hautematea. Etenaldien, etenduren, intonazioaren, tonuaren, mugimenduen eta keinuen komunikazio-asmoez ohartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat hiztunen arteko elkarrizketak, lagunartekoak nahiz formalak, baita gai abstraktuei eta konplexuei buruzkoak ere (norberaren ikuspuntua solaskideari adieraztea, gatazkak ebaztea, mota guztietako transakzioak, ondasunak erostea eta zerbitzuak kontratatzea, interes orokorreko negoziazioak). Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak. Nolabaiteko konplexutasuna duten gaiei buruzko eztabaidak eta jendaurreko hizketaldiak, bai esparru pertsonalekoak, bai ikasketa- edo lanbide-arlokoak ere. Elkarrizketak (lanekoak, ikasketa arlokoak, eta abar). Jendaurreko jarraibide luzeak. Gai konplexuei buruzko jendaurreko aurkezpenak (proiektuak, txostenak, esperientziak, eta abar). Telebistaz edo irratiz emandako mota guztietako berriak. Telebistako edo irratiko dokumentalak. Publizitatea, irratian eta telebistan. 	<ul style="list-style-type: none"> erantzuna: aukera anitzekoak. informazio-transferentzia lotzea antolatze-ariketak erantzun posible bakarreko galdera irekiak



IDATZIZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	GUTXI GORA-BEHERAKO IRAUPENA
2	30 puntu (10 + 20) % 25	20 puntu	90 minutu

Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<ul style="list-style-type: none"> • Deskribapenak eta irudimenezko testuak argi, zehaztasunez eta ongi egituratuta idaztea, konbentzitzeko moduko estiloa, pertsonala eta naturala eta idazkiaren hartzaile izango diren irakurleei egokiturikoa erabiliz. • Ikuspuntuak defendatzeko ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiltzea. • Zenbait aukeraren abantailak eta desabantailak azaltzea eta argumentatzea. • Testu informatiboak idaztea. • Mezu elektronikoak idaztea. • Gutun formalak eta komertzialak idaztea, gutun horiek jasoko dituzten pertsonen egoki zuzendurikoak. • Hainbat iturritan bildutako informazioa laburbiltzea (aipuak, datu estatistikoak, grafikoak, titularrak, eta abar). 	<ul style="list-style-type: none"> • Gutunak, faxak, mezu elektroniko konplexuak eta luzeak, merkataritzakoak edo lan-arlokoak. • Eztabaida-leku birtualetako mezuak (blogak). Jarraibideak eta arauak. • Txostenak (egoerak aurkeztea, aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea, etab.) • Iritzi- eta argudio-testuak. • Informazioa aurkeztea. • Pertsonak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta lekuak deskribatzea. 	<p>1. proba: idazte-ariketa bideratua. Hauetako bat izan daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ testu bat edo testu baten hainbat zati berridaztea, aldatzea edo birformulatzea, aurrez emandako hainbat elementu lexiko-gramatikal errespetatuz. ▪ testu bat zuzentzea ▪ aurrez emaniko informazioa edo zenbait elementu oinarri harturik testu bat sortzea edo lantzea. ▪ testu jakin bat hartzaile jakin batentzat egokitzea (erregistroa, formatua, eta abar egokitzea). <p>2. proba:</p> <p>Testu, egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, azterketariak honako testuetako bat idatzi beharko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ argitalpen, eskolako aldizkari, tokiko aldizkari edo blog baterako iritzi-artikulu, intereseko gairen bati buruzkoa. ▪ aurrez proposaturiko gaiaren aldeko / kontrako testu argudiatua. <p>Ariketa horretan, gerta daitezkeen bi egoera, arazo edo gai proposatuko zaizkio azterketariari. Azterketariak bietako bat aukeratu beharko du ariketa gauzatzeko.</p> <p>Adi: idatzitako testuan, azterketariak eskatutako alderdiak landu beharko ditu, enuntziatuan zehazten den bezala.</p> <p>250 hitz gutxienez.</p>



AHOZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 puntu (15 +15) %25	20 puntu	20 minutu

Helburuak	Testu-motak posibleak	Ariketa-motak
<p>A. Adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> Gai konplexu bati buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea, gaiari buruz hitz egitea eta bere ikuspuntua defendatzea ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiliz. Denbora-koherentzia nahiz koherentzia logikoa mantentzea, eta behar adina informazio eta behar bezain esanguratsua eskaintzea. Ideiak lotzeko lokailuak eta diskurtso-adierazgailuak egoki nahiz malgutasunez erabiltzea. Hitz-jario egokiz mintzatzea, esanahi-ñabardura sotilak helarazteko doinu zehatza erabiliz. 	<p>Beste azterketari bati edo batzuei emandako azalpena.</p>	<p>1. proba*: azalpena. Azterketariak 150-200 hitzeko (gutxienez/gehienez) testua edota argazkiak, irudiak nahiz grafiko iruzkinduak jasoko dituzte. Horiek guztiak probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera informazioa eman eta garapen-proposamenak egingo dira. Azterketariak horiek guztiak erabili ahal izango ditu ariketa gauzatzeko.</p> <p>Bi azterketariak gai proposatuaren aurrean erreakzionatu beharko dute, batak besteari beren ikuspegiak azaldu, informazioa gehitu, beren iritziak jakinarazi.</p> <p>Denbora: azterketari bakoitzak 3-4 minutu izango ditu .</p>
<p>B. Elkarreragina.</p> <ul style="list-style-type: none"> Eztabaidetan, elkarrizketetan eta negoziatioetan parte hartzea, zuzentasunez eta hitz-jario egokiaz, esanahi-ñabardura sotilak transmitituz. Zenbait gertakarik eta esperientziak berarentzat duten garrantzia helaraztea, eta horiek eragiten dioten emozioa 	<p>Hizketaldia beste azterketari batekin edo batzuekin.</p>	<p>2. proba elkarreragina. Azterketariak bata bestearekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helaraziko diote eta nork bere iritzia adierazi beharko diote. Arazo baten balizko zioak aztertuko dituzte; irtenbideak alderatu; eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu.</p>



<p>adieraztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argumentuak argiro garatzea eta ideia osagarriak nahiz adibide egokiak erabiliz azaltzea. • Beste solaskideen ikuspuntuen nahiz argumentuen gainean norbere iritzia ematea. Horretarako, beste argumentu, ikuspuntu eta iritzi egoki erabiliz. • Gai baten inguruan ikuspegia azaltzea, eta aukera batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak azaltzea. • Diskurtsoko funtzio batzuetarako eta besteetarako perpaus egokiak hautatzea norbere iruzkinak sartzeko eta hitz hartu eta hitzari eusteko eta norbere esku-hartzeak gainerako solaskideenekin lotzeko. • Hizketakideek berak esandakoa ulertu dutela ziurtatzea. • Informazioa egiaztatzea edo gezurtatzea. • Nork bere burua zuzentzea. • Informazioa zuzentzea. • Esandakoa ulertu dela egiaztatzea, errepikapenaren, berriz birformulazioaren edo parafraseoaren bitartez. • Esanahiak argitzea era askotako baliabideen bitartez. 		<p>Azterketariek galderak egin eta galderei erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, mintzaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.</p> <p>Azterketariek orri bat jasoko dute; ariketa proposatua eta ariketa hori lantzeko beharrezkoa duten informazio guztia azalduko zaie bertan.</p> <p>Fitxa horretan, halaber, zerrenda bat ere ager daiteke, non ikuspegi desberdinen aldeko edo kontrako argumentuak nahiz datuak bilduko diren. Informazio horrek eztabaida gidatu eta suspertuko du.</p> <p>Denbora: 8 minutu, gehienez ere.</p> <p><i>*Administrazioko protokoloa eta ahozko adierazpenaren probaren prozedura ikusi mailaz maila eta hizkuntzaz hizkuntza web honetan bertan.</i></p> <p>www.eoieuskadi.net/eu/pcertificacion.php?pag=modelos</p>
---	--	---



Idatzizko adierazpenari dagozkion ariketak ebaluatzeko irizpideak

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Egokitasuna: ariketa bete izana eta koherentzia komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> • atazan edo ariketan eskatutakoa betetzea. • erregistro estandarrari –formalari edo lagunartekoari–, hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitzea. • argumentuen garapena.
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> • diskurtsoko loturak, testu antolatzaileak erabiltzea. • erreferentzialtasun-mekanismoak erabiltzea. • puntuazio-ikurrak.
Lexikoa	<ul style="list-style-type: none"> • elementu lexikoen erabilera. • adierazpen idiomatikoaren erabilera.
Zuzentasun morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> • mailaren berezko baliabide linguistikoak kontrolatzea ohiko funtzioak betetzeko. • egitura sintagmatikoak erabiltzea. • erabiltzen dituen baliabideen aniztasuna.
Ortografia	<ul style="list-style-type: none"> • elementu lexikoen forma. • puntuazio-ikurrak. • doinua.

Ahozko adierazpenari dagozkion ariketak ebaluatzeko irizpideak

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Egokitasun eta eraginkortasun komunikatiboak	<ul style="list-style-type: none"> • ataza edo ariketa komunikatiboan eskatutakoa egitea. • argumentuen garapena.
Kohesioa eta jariora	<ul style="list-style-type: none"> • informazioa eta ideiak honako hauen bidez antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ diskurtsoko lokailu egokien bidez. ○ erreferentzia-mekanismoen bidez. • etorria, erritmoa eta naturaltasunez mintzatzea.
Lexikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • erabilitako hiztegiaren zehaztasuna. • esanahiak argitzeko eta mailakatzeko elementu lexikoak erabiltzea. • elementu idiomatikoaren erabilera. • baliabide lexikoen aberastasuna, aniztasuna eta zabaltasuna.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> • gramatika menderatzea: morfologikoki nahiz sintaktikoki. • baliabide gramatikalen aberastasuna, aniztasuna eta zabaltasuna.
Ahoskapena / doinua	<ul style="list-style-type: none"> • doinuaren nahiz ahoskapenaren naturaltasuna eta argitasuna • esanahiak argitzeko eta bereizteko doinua erabiltzea.



ARIKETA-MOTEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Ataza eta ariketa adibideak www.eoieuskadi.net orrian ikus ditzakezu eta baita Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren web orrialdean ere.

PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT GAI

<p>➤ Azterketa egin ahal izateko betekizunak</p> <p>Gaitasun Mailaren Ziurtagiria lortzeko azterketa egin ahal izateko, ikasleak dagokion hizkuntzan matrikulaturik egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean</p> <p>➤ Deialdiak</p> <p>Deialdi bakarra egongo da, maiatzean edo ekainean gauzatuko dena.</p> <p>➤ Azterketa ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea</p> <p>Probak moldatu ahal izango dira ezintasunen bat duten ikasleek egin ditzaten.</p>	<p>➤ Azterketa berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea</p> <p>Ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezarri dituen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiaren arabera, ikasleren batek –ofizial edo libre izan– ebaluazio-prozesua araudian ezarritakoarekin bat etorri ez dela uste badu, azterketa berrikusteko eskubidea aurkez dezake proba egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean. Horretarako, ikasleak eskola bakoitzean ezarritako egutegia errespetatu beharko du.</p> <p>Dagokion departamentuak azalpenak emango dizkio interesdunari.</p>
---	--

GOMENDIO BATZUK

<p>Azterketa egin aurretik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gogoan izan NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat erakutsi beharko duzula azterketako gelan eskatutakoan. • Argi izan azterketa zer egunetan, ordutan eta gelatan duzun. Ondo antolatu zaitez eta garaiz iritsi. Gogoan izan azterketa hasitakoan ezin izango dela inor gelara sartu. 	<p>Azterketa egitean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ariketak egiteko duzun denbora egoki banatu. Ariketak egiteko denbora aurrez neurtu da, eta nahikoa da zati guztiak egin ahal izateko. Azterketaren orrazketa orokorra egitea komeni da, eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea. • Erraz irakurtzeko moduan idatzi, azterketako atal guztietan. Ziur izan egokitzen jo dituzun erantzun guztiak argi geratu direla. • Zati eta ataza bakoitzerako ematen diren argibideak adi irakurri. • Lasai egon behar duzu, eta proba egiteko ematen diren argibideei adi entzun, batez ere, entzumen atalekoei.
---	--



4. INDARREAN DEN ARAUDIA

Gaitasun Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko azterketak legean eta administrazioan arauturik daude, jarraian aipatuko ditugun lege eta agirietan, hain zuzen:

- **2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.**
- **Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua** zeinaren bidez Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan, maiatzaren 3koan, arauturik dauden erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzen curriculumaren oinarriko alderdiak ezarri diren.
- **46/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa.** EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculumaz ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien **Gaitasun mailaren curriculumaz.**
- EAEko HEOetako C1 mailari dagokion **zertifikazio-probaren zehaztasunak** biltzen dituen dokumentua.
- **Ebazpena, 2010eko abenduaren 14koa,** Hezkuntzako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba librearen deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, 2011. urterako.

Azterketaren maila.

Gaitasun Mailako azterketaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- **1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.** Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak:
<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>
http://cvc.cervantes.es/obref/marco/cvc_mer.pdf, 40. orr.: Erreferentziazko maila komunak: eskala orokorrak.
- **46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.** EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako- oinarriko, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculumaz ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000088794&CO NF=/config/k54/bopv_c.cnf
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako **Gaitasun Mailari dagokion Curriculumaz.**



http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html

Informazioa.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria: www.eoieuskadi.net
- Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria. Web nagusitik irits daiteke horietara.
- Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html